

TOKIAN TOKIKO HEDABIDEEK, JAURLARITZA ETA ALDERDIEI

“Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko” Eusko Jaurlaritzak 2005ean banatutako diru-laguntzetan murrizketa nabarmena jasan dute Topagunean federatutako Euskara Elkarteek kudeatutako tokiko hedabideek. Urtetik urtera errepikatzen den joera da hori. **Hauek dira gaur azaldu nahi ditugun kezak:**

- Diru-laguntzen zenbatekoaren berri azaroaren 17an izan genuen (Aldizkari Ofizialean abenduaren 1ean agertu da), baina oraindik ez dakigu noiz jasoko dugun egokitutako diru hori.
- Hedabideentzako diru-saila ez da aspaldian hazi. Kultura Sailaren 2006. urterako aurrekontu proposamena ere ez da nahikoa. Euskarazko hedabideekin bete nahi ditugun beharrak ezin dira 200.000 euro gehiagorekin estali.
- Topagunean federaturiko EAeko tokiko aldizkariak jasotako diru-laguntzen zenbatekoaren kopuru erlatiboa %6 murriztu da 2002. urtetik, urteroko KPIa kontuan hartuz. Zabalkundeari dagokionez, aldizkariok 2002an baino etxe gehiagotara heltzea lortu dugu (zabalkundea %11 hazi da). Egun, Topagunean federaturiko tokiko aldizkariak 150.000 aleko zabalkundea dute.
- Tokiko telebistei dagokienez, une erabakigarrian gaude. Jaurlaritzako Kultura Sailak banatzen duen diruarekin euskarazko tokiko telebistek ezin diote digitalizazioari aurre egin, ez eta telebista berririk sortu. Gaur egun tokiko telebistei eskainitako 150.000 euroekin ezin da behar bezalako euskarazko tokiko telebisten sarerik osatu, are gutxiago, diru hori euskara hutsezkoak ez diren telebistekin partekatu behar badugu.

Kezka hauek eraginda, ondokoak dira **alderdi politikoei eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariari egin nahi dizkiegun eskariak:**

- Tokiko hedabideok ziurtasuna behar dugu lanean jarraitu ahal izateko. Tokiko hedabideok euskaldunon etxeetara tokiko informazioa euskaraz eraman nahi dugu, ahalik eta gehienengana helduz, euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura bultzatuz eta autonomiaz diharduten euskarazko erreferente informatiboak sortuz. Sektoreak laguntza egonkor eta jarraitua behar du, gure eginkizuna jarraitua eta epe luzekoa baita.
- Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen diru-laguntzen banaketaren politika aldatu beharra du. Urtetik urterako aurrekontuak aztertuta, datuek sektore batzuetan gero eta diru gutxiago aurreikusten dela esaten digute, eta ez da nahikoa euskararen garapenean urrats esanguratsuak emateko.

- Euskararen erabilerak duen garrantzia aurrekontuan isla dadila eskatu nahi dugu. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian erabileraren garrantzia azpimarratzen da, baina orain arte ez da aurrekontuetan islatu. Euskaraz ekoizten dena zabaltzeko bideak eta helburu horretara zuzendutako irizpideak behar ditugu.
- Urtetik urtera diru-laguntzak jasotzeko jasaten ari garen atzerapen larriak berriro ez daitezela errepikatu ere eskatzen dugu.

Azkenik, Kultura Sailak nahi badu, tokiko hedabideok prest gaude, beti bezala, egoera aztertu eta konponbidea elkarrekin aurkitzen laguntzeko.

PARTE-HARTZAILEAK

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Herri Komunikabideak Kooperatiba eta EAEko honako tokiko hedabideak:

Hedabidea	Herria	Herrialdea	Maiztasuna
PRENTSA			
<i>Aikor</i>	Txorierrri	Bizkaia	Hilabetekaria
<i>Aiurri</i>	Beterrri eta Buruntza	Gipuzkoa	Astekaria
<i>Aiurri</i>	Beterrri-Ariztondo	Gipuzkoa	Hamaboskaria
<i>Aldaize</i>	Idiazabal	Gipuzkoa	Bi hilabetekaria
<i>Anboto</i>	Durangaldea	Bizkaia	Astekaria
<i>Artzape</i>	Getaria	Gipuzkoa	Hilabetekaria
<i>Baleike</i>	Zumaia	Gipuzkoa	Hilabetekaria
<i>Barren</i>	Elgoibar	Gipuzkoa	Astekaria
<i>Begitu</i>	Arratia	Bizkaia	Hilabetekaria
<i>Berton</i>	Bilbo (Mahatserria)	Bizkaia	Hilabetekaria
<i>Danbolin</i>	Zestoa	Gipuzkoa	Hilabetekaria
<i>Drogetenitturri</i>	Ermua, Mallabia	Bizkaia	Hilabetekaria
<i>Eta Kitto!</i>	Eibar	Gipuzkoa	Astekaria
<i>Galtzaundi</i>	Tolosa	Gipuzkoa	Hamaboskaria
<i>Gaztetzulo</i>	Donostia	Gipuzkoa	Hilabetekaria
<i>Geu</i>	Gasteiz	Araba	Hilabetekaria
<i>Goienkaria</i> (<i>Aretxagazeta, Arrasate</i> <i>Press, Berrigara</i>) eta <i>Asteleheneko</i> <i>Goienkaria</i>	Debagoiena	Gipuzkoa	Astean birritan
<i>Goierritarra</i>	Ordizia	Gipuzkoa	Hamaboskaria



TOPAGUNEA

EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA

<i>Hernaniko Kronika</i>	Hernani	Gipuzkoa	Egunkaria
<i>Kalaputxi</i>	Mutriku	Gipuzkoa	Hilabetekaria
<i>Karkara</i>	Aia, Orio	Gipuzkoa	Hamaboskaria
<i>Maxixatzen</i>	Azkoitia	Gipuzkoa	Astekaria
<i>Noaua!</i>	Usurbil	Gipuzkoa	Hamaboskaria
<i>Pil-pilean</i>	Soraluze	Gipuzkoa	Hamaboskaria
<i>Prest</i>	Deustua	Bizkaia	Hilabetekaria
<i>Txaparro</i>	Zarautz	Gipuzkoa	Hamaboskaria
<i>Txintxarri</i>	Lasarte-Oria	Gipuzkoa	Astean birritan
<i>UK</i>	Getxo	Bizkaia	Hamaboskaria
<i>Uztarria</i>	Azpeitia	Gipuzkoa	Hilabetekaria
IRRATIAK			
<i>Anboto irratia</i>	Durangaldea	Bizkaia	
<i>Arrasate irratia</i>	Debagoiena	Gipuzkoa	
<i>Bilbo Hiria Irratia</i>	Bilbo	Bizkaia	
TELEBISTAK			
<i>Goi TB</i>	Debagoiena	Gipuzkoa	
WEBGUNEAK			